# OTSUA TA TXAKURA

## (SAMANIEGO'REN IPUÑATIK IDOROKIJA)

Mendiko lafa ziaf ebilan bein otso argal-argal bat nafuba ta azufak baño ezeukozan otsua.

Itxeletariko gosiak eraindа ebilan ba, susmetan sastrapa ta otartian ia agertzen zan iñun eizaren atza.

Negu bijotzan ixan zan. Basua eduragaz estalduta eguan. Augatik eperak euren abijetan egozan; erbijak -eta basoko piztijak etziran azaitzen otza zala ta, euren zuluetatik urteten.

—Negu onetako barauba, luziegija dala deritxat, —esan eban aopian otsuak—, urdalak eskatzen daustan janarija ezin emon gogora ta ankera ixan aren. ¡Neuria bai zoritxara!

Onetara oldoztuten iñardubala, menditik berantza jasten asi zan eta, bat-batez ikusi eban zidortxu batetik beraganuntz etorala, txakur mardo ta lodi bat.

—¡Egun on!—esanda—bijak beko aldera joyazan ezkeroz, berbetan asi ziran, antziñako ezagunak bai ziran lez.

—¡Negu onen gogora!—esan e b a n txakurak—. Otzaren-otzaz dar-daraz nago, sutonduan noz etzungo nazan begira.

—Nik emen basuan jasan biar ixaten dotaz ba, eguraldi txar gustijak; batzutan azuretaraño eurijaz bustita; beste batzutan axe otzak leruta—erantzun eutson otsuak.

—Nik bariz, bart geyegi apaldu neban eta bedar erinkorak jaten etori biar ixan nazalako etori naz; ostantzian enaz etxetik urteten.—Erantzun eutson txakurak.

¡Geyegi apaldu ebala bart! ¡Egundo olakorik!

—¿Zelan arano konponduten zara ba, oren oparo bixi ixateko?—itandu eutson otsuak—.Nik alegiñak egin aren, ezin dot jatekorik idoro ba, ta gosiak ilda nago.—Esan eban otsuak.

—¿Zetarako bixi zara, basuan? Etori zatez nigaz urira. An edozein etxetan, etxia jaboteko, pozik artuko zindukeze. Zu sendua ta azkara zara, ta, zugaz eztago lapuren bildurik.

—Eteritxat ogi-bide txara. ¡Amaika bidar ibili ixan naz txartuago!

—Etori ba nigaz. An ondo esango dautzube. Lodiru be egingo zara!

Bitartian otsuak, txakurak zamean motzune bat eukala uartu eban eta, adi-adi eguan berari begira, atz a zerena ete zan igari eziñik.

—¿Zegatik daukozuz samean uliak ziatz moztuta? Itandu eutson azkenez.

—¡A!; ori ezta ezer; katiaren atza baño ezta ori.

—¡Katiak ostera!...

—Bai, ni apur bat okera naz ¿bai? ta, oregatik, lotuta eukiten nabe. Baña jaten duazanian, azkatuta, mayen a zpijan egoten naz; onek botaten daust ogi koskora; arek, azura; bestiak, okela zatija...

—Agur adizkidia,—esan eban otsuak. Basora bi gurtzen naz ba. Zuk ondo jango dozu, bara lo egileko be, leku epela ixango dozu. Baña menpekua zara. Gura dozuna ezingozu egin, jaubiak egindduba baño.

Zuaz, ¡zuaz! jopubori, lotuta bixiten. Nik, ogasun guztijak baño, ¡azkatasuna! gurago dot.—Epaiu eban azkenez otsuak.

Abere onen antzian, ¿eztozubez gixonak ikusi?

Batzuk neguban, jauregi ederetan bixi dira. An eztago otzik: azpi-oyalak lodijak, jesarleku bigunak ta berontzijak axia epelduteko. Baña menpekuak dira. Oretarako, bizkar-azur biurkora euki biar.

Beste batzuk arnas-axe oretan iroten diralako, dana labankerija eztikerija ta guzura.

Gurago dabe basora juan eta mendi tontorian azkiak ba'lira lez Aberijari bijotzez abestu.

Eta alegindu goguak sendotuten eta gorputzak gogortzen, Aberijaren azkatasuna, alik ariñen etori daien.

Ixan gaiezan otsuak; baña ez; ¡Jaungoikuaren!, ipuin amen txakuraren antzekuak.

*UTARSUS.*

---

tura, nuestras aptitudes e ideales y la propia pedagogia.

A la educación vasquista que recibieron en su niñez en la fenecida escuela vasca de grata recordación, que existió en la Plaza Nueva, mucho se debe el arraigo que el ideal nacionalista tiene en Bizkaya, pues son muchos los jóvenes alumnos de la misma que se han incorporado al renacentismo vasco.

El idioma, la raza y el estudio de la personalidad de la patria pueden ser estudiados con todo detenimiento en la misma.

¿Veremos su resurgimiento?

LATARI.

**Propaga, siempre, entre tus amigos y familiares "Euzkerea", la Revista defensora de tu idioma, de tus leyes y de tu raza.**

**Si eres euzkeldun, lee la Revista "Euzkerea"**
**Si eres vasco amante de tu país, aunque no seas euzkeldun, lee la Revista "Euzkerea".**
**VASCO: Seas o no euzkeldun, SUSCRIBETE a la Revista "Euzkerea".**